


KRONIKA

Kapsula eta baserriez



Martina de Simon,
Malen Jauregialtzo eta
Leire Mintegi

Arkitekto graduatuak

Jasotze data: 2019-12-13

Onartze data: 2020-01-15

2019. urteko azken hiruhilekoan MUGAK Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienala izan zen, eta bertan Nakagin dorrea hainbat ikuspuntutatik landu zen (hitzaldia eman zen, lantegia antolatu zen eta eskala errealeko maketa egon zen ikusgai Donostiako Klub Nautikoaren terrazan). Prozesuan parte hartu zutenetako batzuek idatzi dute kronika hau.

Donostiako kaian urrutitik ikus daitekeen kutxa dirdiratsuak jendearen begirada erakartzen du etengabe. Gerturatu eta harriduraz begiratzen dute espazio-ontzi baten itxura ematen dion leiho borobilean barrena. Begiratu soil batez, pospolo-kaxa baten tamainako gela ikusi daiteke, etxebizitza bat dena, antza.

Ospatu berri den MUGAK bienalak iraun duen hiru hilabeteetan, paisaiaren parte bihurtu den Nakagin dorrearen kapsula baten erreprodukzioa izan dugu gure artean. Arrastiari begiradak lapurtu dizkion kubo txuri hau, portuan denbora gutxirako egongo den objektu bezala desiragarria egiten da, baina horrelako arkitektura benetan gure inguruan egikaritu daitekeela pentsatze hutsak errefusa sor dezake.

Batek baino gehiagok pentsatuko zuen Donostian horrelakorik eraikitzeke plan baten aurrekaria izan zitekeela, Nakagin dorrea kapsula-hotel klaustrofobikoen jatorria baita. Baten batek sentituko zuen, aldirietara joan ordez hirian bertan bizitzearren, etxebizitza minimoak onartzeak dakarren arriskuaren beldurra. Hiriak kapsulaz gainezka imajinatzea, Yona Friedmanen munduan bezala,

edonor ikaratu dezakeen ideia da, hein batean erakargarria izan daitekeen bitartean. Gure lurraldea konkistatuko duen estetika eta biziera berria inbasore agertzen zaigu gure paisaia tradizionalaren irudi bukolikoa.

XX. mendean metropolietan gertatzen den biztanleriaren pilatze masiboak zekartzan arazoaren aurrean sortutako arkitektura dugu Nakagin dorrea, etengabe hazten ari zen Tokio batean, finantza-barrutian espazio faltari erantzun bat emateko soluzio arkitektonikoa. Etxebizitza minimoaren muga aldiro gainditzen dugun garaiotan eta hirien hazkundera auzian dagoen gaia izanik, hirigintzak honen irtenbidea topatzeko saiakeran dihardu.

Mugimendu metabolistaren ikurra den eraikin hau, hiriaren izaera dinamikoaren isla izateko diseinatu zuen Kisho Kurokawa 1972an, pertsona bakar baten behar espazial aldakorretara moldatzeko gaitasuna duten bizitegien pilaketa gisa. Nakagin kapsula-dorrea elkarri lotutako hormigoizko bi dorrek eta haiei helduta dauden 140 modulu aurrefabrikatutako osatzen dute. Lo, jan, erlaxatu eta lan egiteko gune ezberdinek espazio bera partekatzen dute, bizigarri egiten duen programa minimoa, alegia. Nagusiki langile ezkongabeentzat bideratuta, aste barrurako egonaldia eskaintzen duen espazioa da, Tokioko periferiatik joan-etorriak saihestuz. Kapsulak ordezkarriak eta konbinagarriak dira eta, era berean, funtzio berriak jasotzeko ahalmena dute.

Mugimendu metabolistak zelula habitagarri bat gorpuztea bilatzen zuen. Zelula txiki eta higikariak megaegitura batek atontzen ditu. Eraikina kapsula ordezkarriek eratzen dute, eta kapsula horiek, halaber, ordezkarriak diren

elementu txikiagoz daude eratuta. Eskala ezberdineko ordezkapen horiek, ordea, ez diete inoiz osotasunaren funtzionamenduari edo gainontzeko osagarriari eragingo. Mugatua den horrek amaigabea dena irudikatzen du.

Gizakiaren osagarri bat izateko urrun, proposatzen den arkitektura hau ezin da ulertu haren baitan bizi dena gabe, haren existentzian oinarritzen den entitate konposatu bat bezala onartzen da: gizakia-makina-espazioa. Beraz, gizakiaren transformazioak eragindako emaitza da arkitektura, etengabeko aldaketan dagoena.

Hirigintza, eta eskala txikiagoan, arkitektura malgu eta aldakor hau ulertzeko zaila eta batzuetan, utopikoa egiten zaigu oro har eta, batez ere, eraikitzen bukatzen direnetik eraitsi arte aldaketarik jasan gabe dirauten eraikinetan bizi garenoi. Baliteke, hau izatea Nakagin dorrean kapsula bat ere aldatu ez izanaren arrazoietako bat, 25 urteko zaharkitze-data bazuten ere.

Idea honek arkitektura garaikidean lekurik ez duen arren, ez dago gugandik hain urrun: etxebizitza bernakuluak —gure ohiko baserriak, esaterako— beharren arabera aldaketak jasateko ideia hartzen baitzuen bere gain.



*Irudia - The city above the city: ecologically expand capsule tower in Tokyo.
Egilea - Muça + Safaryan.*

Baserria bertan bizi zen familiarekin eta horren beharren arabera hazten edo moldatzen zihoan arkitektura izan da; eskala txikiko industriagune bat, bere ingurunea ustiatzeko makina bezala irakur daitekeena. Arkitektura hau ezin da ulertu erabiltzailerik eta produkzionik gabe. Gizakia-makina-espazioa, berriro ere.

Baserriaren funtsa diren kontzeptu hauek ahaztuta, garai bateko paisaiaren irudi izoztu bat sortu da gure nortasunaren sinbolotzat. Baserriarena izandako tipologia zaharkitua errepikatzen da gure lurraldean behin eta berriro, ezaugarri estetiko hutsak erreproduzituz. Era bertsuan hasi ziren agertzen, gutxinaka, hain ezagunak diren kapsula-hotel japoniarrak, Nakagin dorrearen estetika erreplikaturik. Irudi baten bila, erreproduzio hauek, prozesu amaigabe eta dinamiko baten fase bateko ezaugarriak imitatzen dituzte, prozesuei jarraitzea ekidinez.

Paradoxikoa da futurista dirudiena arkitektura tradizionaletik gertuago egotea identitariotzat dugun estetika folklorikoa baino.
